

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

OROIMEN HISTORIKOA

ZIZURKIL ETA GERRA ZIBILA,

1936/2011



www.zizurkil.com

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

azaroa 2011 | 95. zenbakia | UDAZKENA



KULTURA

OROIMEN HISTORIKOA:

Frankismoa Zizurkilera iritsi zela 75 urte bete dira 2011ko abuztuaren 16an. Hori dela eta, Teodoro Hernandorena Taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu:

2011-11-02: "Egia, justizia eta erreparazioa" hitzaldia Oroitz taldearen eskutik Iriarte Etxean 19:30ean.

2011-11-03: "Exhumando fosas... recuperando dignidades" Francisco Etxeberriaren eskutik Atxulondon 19:30ean (gaztelaniaz).

2011-11-06: Herriko hilerrian monolito bat jarriko da lau herritar fusilatuen omenez 12:00etan.

Teodoro Hernandoren Kultur Taldeak herriko buzoeitan 75. urteurren honen inguruko liburuxka bat banatuko du.

SANTA XEXILI:

- **2011-11-19: Loatzo Musika Eskolako ikasle guztien jaialdia**
Alegin: kontzertuak, bazkaria, e.a.
- **Azaroaren 17an 18:00etan** Loatzo Musika Eskolako ikasleek **kalejira** egingo dute **Zizurkilen**.



DIRULAGUNTZEN BIGARREN ZATIAREN ZURITZEA:

Herriko elkarteek Udalak 2011. urtean eman dituen dirulaguntzen zuritzea egin beharko dute urtea amaitu aurretik, urteko ekitaldien memoria eta fakturak aurkeztuz. Dokumentazio hau aurkeztu ondoren, Udalak dirulaguntzaren %25a ordainduko die.



KZ GUNEA:

TUTORITZAK azaroaren 3 eta 17an 16'00etatik 20'00etara

IKASTAROAK: KZ gunean maila desberdinetako ikastaroak antolatuko dira goiz eta arratsaldean. Anima zaitetz eta liburutegian eska ezazu informazioa

EUSKARA:

TEODORO HERNANDORENA X. IPUIN LEHIAKETA: Klean dira dagoeneko oinarriak. Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute eta bost maila ezberdin antolatu dira adinen arabera (A. Maila: 6-8 urtekoena; B. Maila: 9-11 urtekoena; C. Maila: 12-13 urtekoena; D. Maila: 14-16 urtekoena eta E. Maila: 17 urtetik gorakoena). Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira azaroaren 11a bitartean, egun hau barne, eguerdiko 14'00ak baino lehenago Zizurkilgo Udal Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude bertan.

KIROLA:

2011-11-05: XIII. DONOSTIA HIRIA RALLYA:

Hiru zati desberdinez osaturiko Rally hau Zizurkilera iritsiko da azaroaren 5ean 14:30etik aurrera. Pello Mari Otaño Plazatik aterata 100 kotxe inguru ikusteko parada izango da Aia aldera. Rallyaren zatirik ikusgarriena izango da. Karretera 13:30etik aurrera itxiko da. Informazio gehiago: www.eaf-fva. Rallyko beste bi zatiak Jaizkibel eta Ingelesaren Gazteluan egingo dira.



2011-11-25: TOUReko LEHENENGO TXIRRINDULARI EUSKALDUNARI OMENALDIA Urkamendi Elkartearen.

BESTELAKOAK:

2011-11-12:

GAZTAIN JATEA Zizurkil Goian.



2011-11-12: SAN MILLAN EGUNA.

"DEMENTZIAK, ALZHEIMERRA" IKASTAROA:

Azaroaren 7,14 eta 21ean, 15:30etik 18:45era Atxulondo Kultur Etxean. Doakoa. Informazio gehiago: Aitzondo Zerbitzuen Mankomunitatean, 943-693930.